



XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehen. Berandutze-interesa.

2026ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitarteko ondorioekin, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrak (martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak 26.6 artikuluan aipatzen duen berandutze-interesa 100eko 4,0625 izango da.

Bigarrena. Tasak eguneratzea.

Gipuzkoako Foru Ogasunaren tasak, departamentuek kudeatutakoak, zenbateko finkokoak badira oinarrian portzentaje baten arabera zehaztuta ez egoteagatik edo oinarri hori moneta unitatetan baloratuta ez egoteagatik, 2025ean exijigarria den zenbatekoari 1,020 koefizientea aplikatuta ateratzen den kopururaino igoko dira, hargatik eragotzi gabe garraio alorrean zerbitzuak eman eta jarduerak egiteagatik exijitu beharreko tasak arautzen dituen uztailaren 12ko 5/2005 Foru Arauak 5. artikuluen 4. zenbakian ezarritakoa.

Hirugarrena. Balio katastralak eguneratzea.

Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari buruzko uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauaren 13. artikuluan aurreikusitakoaren ondorioetarako, 2025. urtean indarrean dauden balioei 1,020eko eguneratze koefizientea aplikatuko zaie 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera.

Laugarrena. Gipuzkoako Lurralde Historikoko AP-8 eta AP-1 autobideak eta A-636 autobia erabiltzeko kanona.

1. 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera, AP-8 eta AP-1 autobideak erabiltzeagatik kanonaren zenbatekoak, Gipuzkoako Lurralde Historikotik igarotzen den ibilbidean, eta AP-636 autobia erabiltzeagatik kanonaren zenbatekoak igo egingo dira, 2025ean galdagarria den zenbatekoa %2,80 igotzearen ondoriozko zenbatekoraino, eta honako zenbateko hauek izango dituzte (BEZa barne):

DISPOSICIONES ADICIONALES

Primera. Interés de demora.

Con efectos desde el 1 de enero hasta el 31 de diciembre del año 2026, el interés de demora a que se refiere el artículo 26.6 de la Norma Foral 2/2005, de 8 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa, será del 4,0625 por 100.

Segunda. Actualización de las tasas.

Las tasas de la Hacienda Foral de Gipuzkoa, gestionadas por los diversos departamentos, que sean de cuantía fija, por no estar determinadas por un porcentaje en la base o ésta no estar valorada en unidades monetarias, se incrementan hasta la cantidad que resulte de la aplicación del coeficiente 1,020 a la cuantía exigible en 2025, sin perjuicio de lo establecido en el número 4 del artículo 5 de la Norma Foral 5/2005, de 12 de julio, reguladora de las tasas por la prestación de servicios y realización de actividades en materia de transportes.

Tercera. Actualización de los valores catastrales.

A efectos de lo previsto en el artículo 13 de la Norma Foral 12/1989, de 5 de julio, del Impuesto sobre Bienes Inmuebles, se establece un coeficiente de actualización del 1,020 aplicable a partir de 1 de enero del año 2026 a los valores vigentes durante el año 2025.

Cuarta. Canon de utilización de las autopistas AP-8 y AP-1 y de la autovía A-636 en el Territorio Histórico de Gipuzkoa.

1. A partir del 1 de enero del año 2026 las cuantías del canon de utilización de las autopistas AP-8 y AP-1, en el itinerario que discurre por el Territorio Histórico de Gipuzkoa, y la autovía AP-636, se elevan hasta la cuantía que resulte de incrementar en un 2,80 por 100 el importe exigible durante el año 2025 quedando establecidas en los siguientes importes (IVA incluido):



AP-8 Gipuzkoa		Donostia O	Oiartzun	Irun M/O	Oñaurre	Behobia
Irekia - Abierto						
Zarautz E.	Arin./Lig	2,80				
	Ast.1/Pes.1	5,02				
	Ast.2/Pes.2	5,68				
Orio	Arin./Lig	2,19				
	Ast.1/Pes.1	3,93				
	Ast.2/Pes.2	4,44				
Donostia E.	Arin./Lig		1,61	2,24	2,47	3,15
	Ast.1/Pes.1		2,65	3,83	4,33	5,45
	Ast.2/Pes.2		3,06	4,57	5,25	6,53
Oiartzun	Arin./Lig			2,24	2,47	3,15
	Ast.1/Pes.1			3,73	4,33	5,45
	Ast.2/Pes.2			4,45	5,25	6,53
Irun Ventas	Arin./Lig				0,50	1,17
	Ast.1/Pes.1				0,87	2,00
	Ast.2/Pes.2				0,96	2,26

AP-8 Gipuzkoa		Eibar E.	Maltzaga	Elgoibar	Itziar	Zestoa-Zumaia	Zarautz O	Donostia (Zarautz B.)		
Itxia - Cerrado										
Muga Gipuzkoa - Bizkaia	Arin./Lig	0,73	0,73	1,63	2,91	3,81	5,19	7,88		
	Ast.1/Pes.1	1,17	1,17	2,72	5,09	6,74	9,19	13,93		
	Ast.2/Pes.2	1,32	1,32	3,29	5,98	7,86	10,86	16,26		
Eibar E.	Arin./Lig		0,31	1,17	2,47	3,27	4,75	7,43		
	Ast.1/Pes.1		0,39	1,91	4,37	5,81	8,41	12,90		
	Ast.2/Pes.2		0,44	2,26	5,17	6,75	9,95	15,26		
Maltzaga	Arin./Lig			1,01	2,28	3,00	4,56	7,14		
	Ast.1/Pes.1			1,63	4,09	5,57	8,07	12,68		
	Ast.2/Pes.2			1,87	4,58	6,44	9,47	14,96		
Elgoibar	Arin./Lig				1,63	2,35	3,92	6,41		
	Ast.1/Pes.1				2,72	4,28	7,00	11,54		
	Ast.2/Pes.2				3,29	4,85	8,06	13,41		
Itziar	Arin./Lig					1,37	1,17	2,47	5,17	
	Ast.1/Pes.1					2,35	1,80	4,46	9,04	
	Ast.2/Pes.2					2,83	2,07	5,34	10,58	
Zestoa-Zumaia	Arin./Lig							1,74	4,41	
	Ast.1/Pes.1								2,91	7,74
	Ast.2/Pes.2								3,57	8,88



AP-1 Gipuzkoa		Bergara I/N	Bergara H/S	Arrasate (Epele)	Eskoriatza (San Bernabe)	Muga Gipuzkoa - Araba		
Maltzaga	Arin./Lig	1,57	2,35	3,00	4,65	6,93		
	Ast.1/Pes.1	2,54	4,18	5,19	7,98	11,92		
	Ast.2/Pes.2	3,06	4,79	6,08	9,32	14,02		
Bergara H/S	Arin./Lig			0,89	2,45	4,76		
	Ast.1/Pes.1			1,47	4,19	8,17		
	Ast.2/Pes.2			1,71	4,91	9,60		
Arrasate (Epele)	Arin./Lig					1,71	3,99	
	Ast.1/Pes.1					2,94	6,92	
	Ast.2/Pes.2					3,43	8,13	
Eskoriatza (San Bernabe)	Arin./Lig							2,42
	Ast.1/Pes.1							4,13
	Ast.2/Pes.2							4,84

A-636 Gipuzkoa	Arin./Lig	Ast.1/Pes.1	Ast.2/Pes.2
Beasain - Ormaiztegi	0,42	0,67	0,86
Ormaiztegi - Zumarraga	0,82	1,31	1,64
Legazpi/Urretxu - Bergara	1,55	2,55	3,17
Legazpi/Urretxu - Antzuola	0,52	0,87	1,08

2. Joan-etorriko ibilbideagatiko kenkari gehigarria, ekainaren 15eko 4/2010 Foru Dekretu Arauaren 3. artikuluan arautua, %2,80 handituko da 2025ean aplikatu beharreko zenbatekoari dagokionez, eta, horrela, 2026rako zenbatekoa 0,59 euro izango.

3. Ekainaren 15eko 4/2010 Foru Dekretu Arauaren 3.bis artikuluan araututako hileko gastuaren muga: AP-8 eta AP-1 autobideen Gipuzkoako tartetean eta AP-636 autobian egindako zirkulazioengatik 2025ean aplikatu beharreko gehieneko zenbatekoa %2,80 handituko da. Ondorioz, 2026. urterako zenbatekoa 38,02 euro izango da.

4. Araban AP-1 eta Bizkaian AP-8 autobideak Gipuzkoatik kanpoko ibilbideetan erabiltzeagatiko hileko gehieneko gastu gehigarriaren muga, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2018. urterako Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 26ko 3/2017 Foru Arauaren hirugarren xedapen gehigarriaren 6. apartatuan arautua, 2025ean aplikatu beharreko gehieneko zenbatekoa %2,80 handituko da, eta, horrela, 2026. urterako zenbatekoa 54,93 euro izango da.

2. La deducción adicional por trayecto de ida y vuelta regulada en el artículo 3 del Decreto Foral-Norma 4/2010, de 15 de junio, se incrementa en un 2,80 por 100 el importe aplicable durante el año 2025, que queda establecido para el año 2026 en 0,59 euros.

3. El límite mensual de gasto regulado en el artículo 3.bis del Decreto Foral-Norma 4/2010, de 15 de junio: el importe máximo aplicable durante el año 2025 por los tránsitos realizados en los tramos guipuzcoanos de las autopistas AP-8 y AP-1 y en la autovía AP-636, se incrementa en un 2,80 por 100, que queda establecido para el año 2026 en 38,02 euros.

4. El límite de gasto adicional, máximo mensual, por el uso de las autopistas AP-1 en Alava y AP-8 en Bizkaia en los recorridos fuera de Gipuzkoa regulado en el apartado 6 de la disposición adicional tercera de la Norma Foral 3/2017, de 26 de diciembre, por la que se aprueban los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa para el año 2018, se incrementa en un 2,80 por 100 el importe máximo aplicable durante el año 2025 que queda establecido para el año 2026 en 54,93 euros.



Bosgarrena. Gipuzkoako Lurralde Historikoko toki korporazioetako kideen ordainsarien gehieneko mugak zehaztea.

1. Asistentziengatik eta ordainsari kontzeptu guztiengatik toki korporazioetako kideek jaso dezaketen zenbatekoaren gehieneko mugak ondorengo taularen arabera izango dira, kanpoan utzita, hala balegokio, zerbitzu berezien egoeran dauden karrerako funtzionarioek jaso ditzaketen hirurtekoak, eta kontuan izanda, besteak beste, toki entitatearen izaera eta biztanleria:

Biztanleak / Habitantes	Erreferentzia / Referencia
50.001etik aurrera A partir de 50.001	Eusko Jaurlaritzako sailburua – % 10 Consejero/a del Gobierno Vasco – 10%
20.001etik 50.000ra De 20.001 hasta 50.000	Eusko Jaurlaritzako sailburua – % 15 Consejero/a del Gobierno Vasco – 15%
10.001etik 20.000ra De 10.001 hasta 20.000	Eusko Jaurlaritzako zuzendaria Director/a del Gobierno Vasco
5.001etik 10.000ra De 5.001 hasta 10.000	Eusko Jaurlaritzako zuzendaria – % 10 Director/a del Gobierno Vasco – 10%
1.000tik 5.000ra De 1.000 hasta 5.000	Eusko Jaurlaritzako zuzendaria – % 25 Director/a del Gobierno Vasco – 25%

2. Lurralde historikoko hiriburuari aplikatu beharreko gehieneko muga 101.900,00 euro izango da; betiere Eusko Jaurlaritzako sailburuari dagokion ordainsaria eguneratzen den baldintza beretan eguneratuta.

3. «1.000tik 5.000ra» arteko tarterako muga Eusko Jaurlaritzako zuzendari baten ordainsaria - %15 izango da, bi baldintza hauek betetzen direnean: toki entitateak 2.000 biztanle baino gehiago izatea, batetik; eta, bestetik, likidatutako azken ekitaldiko datuen arabera, zor publikoaren helburu nagusia betetzea edo, hori beteko ez balu, indarrean dagoen plan ekonomiko-finantzarioan ezarritako helburua betetzea.

4. 1.000 biztanletik beherako udalerrietan toki korporazioko kideek, salbuespen gisa, dedikazio partzialez gauzatzen dituztenean beren karguak, horien ordainsarien gehieneko muga honela kalkulatu da: «1.000tik 5.000ra» arteko tartearen mugari dagokion dedikazio ehunekoa aplikatuta.

5. Dedikazio partzialen gehieneko mugak honela kalkulatu dira: xedapen gehigarri honen 1. zenbakian aurreikusitako taularen arabera

Quinta. Determinación de los límites máximos de las retribuciones de las y los miembros de las corporaciones locales del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

1. Los límites máximos totales que pueden percibir las y los miembros de las corporaciones locales por todos los conceptos retributivos y asistencias, excluidos los trienios a los que, en su caso, tengan derecho aquellos funcionarios y funcionarias de carrera que se encuentren en situación de servicios especiales, y atendiendo, entre otros criterios, a la naturaleza de la entidad local y a su población, se ajustarán a la siguiente tabla:

2. El límite máximo aplicable a la capital del territorio histórico será de 101.900,00 euros, actualizado en los mismos términos en que lo haga la retribución correspondiente al cargo de consejero o consejera del Gobierno Vasco.

3. El límite para el tramo «De 1.000 a 5.000» será la retribución de un/a Director/a del Gobierno Vasco - 15%, en caso de que la entidad local tenga más de 2.000 habitantes y cumpla con el objetivo de deuda pública general o, en caso de incumplimiento del mismo, con el establecido en el plan económico-financiero en vigor, según los datos del último ejercicio liquidado.

4. El límite máximo de las retribuciones de las y los miembros de corporaciones locales de municipios de menos de 1.000 habitantes que, excepcionalmente, desempeñen sus cargos con dedicación parcial, será el resultado de aplicar al límite establecido para el tramo «De 1.000 a 5.000» el porcentaje de dedicación correspondiente.

5. Los límites máximos de las dedicaciones parciales serán los que resulten de aplicar a los correspondientes de la tabla prevista en el número 1



dagozkienei toki entitateak erabakitako dedikazio ehunekoa aplikatuta.

6. Xedapen gehigarri honen 1. zenbakian ezarri diren mugak Eusko Jaurlaritzako aipatu karguen ordainsariak eguneratzen direnaren arabera eguneratuko dira.

Seigarrena. Kreditu gehigarriak.

1. Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak kreditu gehigarriak onetsi ahal izango ditu diruzaintzako gerakinaren kargura, aurrekontuari aplikatu gabe dauden eta 2025eko abenduaren 31n "Aurrekontuari aplikatu gabeko eragiketen hartzekodunak" kontuan kontabilizatu diren betebeharrei edo horien baliokideei erantzuteko, aplikagarria den araudian xedatutako eran.

2. Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak mendiak hobetzeko funtserako kreditu gehigarriak onetsi ahal izango ditu diruzaintzako gerakinaren kargura, betiere funts horretan kontzeptu horretarako gordetako zenbatekoaren mugarekin.

3. Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak kreditu gehigarriak onetsi ahal izango ditu, diruzaintzako gerakinaren kargura, konkurtso prozesuetan eta beste edozein bilketa prozeduratan ondasunak eta eskubideak eskuratzeko.

4. Diputatuen Kontseiluak, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak proposatuta, kreditu gehigarriak onetsi ahalko ditu diruzaintzako gerakinaren kargura, zorraren ezohiko amortizaziorako, eta ez dira kontuan hartuko 5. atalean adierazitako mugari dagokionez.

5. 2026ko ekitaldian, Diputatuen Kontseiluak, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak proposatuta, kreditu gehigarriak onetsi ahalko ditu diruzaintzako gerakinaren kargura, kudeaketako aurrekontu propioaren % 4ko gehieneko mugarekin, honako hauetatik sortutako beharrak estaltzeko:

- Egoera ekonomikoa.
- Finantzaketa lotuko proiektuak gauzatzea.
- Proiektu estrategikoak gauzatzea.

el porcentaje de dedicación acordado por la entidad local.

6. Los límites establecidos en el número 1 anterior, se actualizarán de acuerdo a como lo hagan las retribuciones de los cargos del Gobierno Vasco a los que están referenciadas.

Sexta. Créditos adicionales.

1. La diputada foral del Departamento de Hacienda y Finanzas podrá aprobar créditos adicionales con cargo al remanente de tesorería para atender las obligaciones pendientes de aplicar a presupuesto contabilizadas a 31 de diciembre de 2025 en la cuenta de "acreedores por operaciones pendientes de aplicar a presupuesto", o equivalentes en los términos establecidos en la normativa que resulte de aplicación.

2. La diputada foral del Departamento de Hacienda y Finanzas podrá aprobar créditos adicionales con cargo al remanente de tesorería con destino al fondo de mejoras de montes, con el límite del importe reservado para este concepto en el mismo.

3. La diputada foral del Departamento de Hacienda y Finanzas podrá aprobar créditos adicionales con cargo al remanente de tesorería con destino a la adquisición de bienes y derechos en los procesos concursales y en cualquier otro procedimiento de recaudación.

4. El Consejo de Gobierno Foral, a propuesta de la diputada foral del Departamento de Hacienda y Finanzas, podrá aprobar créditos adicionales con cargo al remanente de tesorería con destino a la amortización extraordinaria de deuda, no computando a efectos del límite señalado en el apartado 5.

5. Durante el ejercicio 2026, el Consejo de Gobierno Foral, a propuesta de la diputada foral del Departamento de Hacienda y Finanzas, podrá aprobar créditos adicionales con cargo al remanente de tesorería con un límite máximo del 4% del presupuesto propio de gestión, con destino a cubrir necesidades surgidas de:

- La coyuntura económica.
- La ejecución de proyectos con financiación afectada.
- La ejecución de proyectos estratégicos.



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

- Egoitza-eredu berriaren garapenari lotutako inbertsioak.

- Arrisku-kapitaleko inbertsioak, Gipuzkoako lurralderako interes estrategikoa duten enpresa berrien sorrera bultzatzeko eta hazkundera sustatzeko.

Zazpigarrena. Finantzaketa Lotuko Proiektuei eta proiektu estrategikoei lotutako funtsak kudeatzeko hitzarmenen izapidetzea.

Dagozkion funtsen izapideak arintzeko, 17. artikuluan aipatzen diren finantzaketa lotuko proiektuei eta proiektu estrategikoei lotutako funtsak kudeatzea xede duten hitzarmenak Gipuzkoako Batzar Nagusiek lehentasunez eta presaz berretsi beharko dituzte, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Erakunde Antolaketari, Gobernuari eta Administrazioari buruzko uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauaren 8.3.c) artikuluekin bat etorritz.

Zortzigarrena. Aurrekontuaren egokitzapen teknikoak.

Finantza eta Aurrekontuetako zuzendari nagusiari baimena ematen zaio aurrekontuan bidezko egokitzapen teknikoak egiteko, horiek beharrezkoak direnean berrantolaketa administratiboak egin direlako edo aurreko ekitaldian konprometitu bai baina gauzatu ez diren gastuak –gastu txertatu gabeak– aurrekontuari egotzi behar zaizkiolako, edo, duten helburua sarrerak eta gastuak kontabilitatean egoki egoztearen denean. Behar diren aurrekontu partidak sortuko ditu horretarako.

Zainketa eta Gizarte Politiketako Departamentuko foru diputatuari baimena ematen zaio Uliazpi Fundazioa eta Kabia foru organismo autonomoen aurrekontuan bidezko egokitzapen teknikoak egin ditzan, baldin eta haien helburua gastuak kontabilitatean egoki egoztearen bada. Horretarako, behar diren aurrekontu partidak sortuko dira, kredituen lotura mailaren barruan.

Bederatzigarrena. Saldoen arazketa.

Ogasun eta Finantza Departamentuari dagokio kontuetan sortutako saldoak zuzentzea eta araztea,

- Las inversiones vinculadas al desarrollo del nuevo modelo de residencias.

- Las inversiones en capital riesgo para impulsar la creación de nuevas empresas de interés estratégico para el Territorio de Gipuzkoa y así como para promover el crecimiento y el arraigo de las empresas existentes.

Séptima. Tramitación de convenios para la gestión de los fondos vinculados a los proyectos con financiación afectada y a los proyectos estratégicos de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Con el fin de agilizar la tramitación de los fondos correspondientes, los convenios que tengan por objeto la gestión de los fondos vinculados a los proyectos con financiación afectada y a los proyectos estratégicos de la Diputación Foral de Gipuzkoa a que se refiere el artículo 17 se someterán mediante tramitación preferente y de urgencia a la ratificación por parte de las Juntas Generales de Gipuzkoa, de acuerdo con el artículo 8.3.c) de la Norma Foral 6/2005, de 12 de julio, sobre Organización Institucional, Gobierno y Administración del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Octava. Adaptaciones técnicas del presupuesto.

Se autoriza a la directora general de Finanzas y Presupuestos a efectuar en el presupuesto las adaptaciones técnicas que resulten necesarias como consecuencia de reorganizaciones administrativas, de la imputación al presupuesto de gastos comprometidos y no ejecutados en el ejercicio anterior y que no hayan sido objeto de incorporación, o que tengan por objeto una correcta imputación contable de los ingresos y gastos, creando al efecto las partidas presupuestarias que resulten precisas.

Se autoriza a la diputada foral del Departamento de Cuidados y Políticas Sociales a efectuar en el presupuesto de los organismos autónomos forales Fundación Uliazpi y Kabia, las adaptaciones técnicas que tengan por objeto una correcta imputación contable de los gastos, creando al efecto las partidas presupuestarias que resulten precisas dentro del grado de vinculación de los créditos.

Novena. Depuración de saldos.

Corresponde al Departamento de Hacienda y Finanzas la rectificación y depuración de los saldos contraídos en cuentas, a fin de que en la contabilidad



benetan exigigarri edo egingarriak diren kredituak eta zorrak kontabilitatean jasota gera daitezen.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Bakarra. Aurrekontua luzatzea.

2026. urteko aurrekontuaren luzapenaldian zehar, halakorik balego, aurrekontu kredituen eta haien aldaketen araubide orokorra martxoaren 27ko 4/2007 Foru Arauaren 78. artikuluan eta foru arau honen III. tituluan ezarritakoa izango da.

Era berean, aurrekontuaren luzapenaldian zehar, aplikagarriak izango dira II., IV., V. eta VII. tituluetan jasotako artikulak, eta foru arau honetako xedapen gehigarriak, xedapen iragankorrak eta azken xedapenak.

AMAIERAKO XEDAPENAK

Lehena. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga.

2026ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, aldaketa hauek sartzen dira Gipuzkoako Lurralde Historikoko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 3/2014 Foru Arauan:

Bat. 73. artikulua honela geratzen da idatzita.

«73. artikulua. Murrizpena batera tributatzeagatik.

Foru arau honen 96. artikuluan xedatutakoari jarraituz batera tributatzea aukeratzen den kasuetan, zerga oinarri orokorra 4.896 euro murriztuko da urtean autoliquidazio bakoitzeko.»

Bi. 75. artikulua 1. zenbakia honela geratzen da idatzita:

«1. Oinarri likidagarri orokorrari ondoko eskalan adierazten diren karga tasak aplikatuko zaizkio:

figuren los créditos y débitos verdaderamente exigibles o realizables.

DISPOSICIONES TRANSITORIAS

Única. Prórroga presupuestaria.

Durante el período de prórroga del presupuesto de 2026, si la hubiera, el régimen general de los créditos presupuestarios y de sus modificaciones se regulará por lo establecido en el artículo 78 de la Norma Foral 4/2007, de 27 de marzo, y por el título III de la presente norma foral.

Así mismo, serán de aplicación durante la prórroga presupuestaria los preceptos contenidos en los títulos II, IV, V, VII, así como las disposiciones adicionales, disposiciones transitorias y disposiciones finales de esta norma foral.

DISPOSICIONES FINALES

Primera. Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.

Con efectos a partir del 1 de enero de 2026 se introducen las siguientes modificaciones en la Norma Foral 3/2014, de 17 de enero, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas del Territorio Histórico de Gipuzkoa:

Uno. El artículo 73 queda redactado en los siguientes términos:

«Artículo 73. Reducción por tributación conjunta.

En los supuestos en que, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 96 de esta norma foral se opte por la tributación conjunta, la base imponible general se reducirá en el importe de 4.896 euros anuales por autoliquidación.»

Dos. El número 1 del artículo 75 queda redactado en los siguientes términos:

«1. La base liquidable general será gravada a los tipos que se indican en la siguiente escala:



<i>Oinarri likidagarri orokorra (goi muga)/Base liquidable general hasta</i>	<i>Kuota osoa / Cuota íntegra</i>	<i>Oinarri likidagarriaren gainerakoa (goi muga)/Resto base liquidable hasta</i>	<i>Tasa aplikagarria/Tipo aplicable</i>
Euroak/Euros	Euroak/Euros	Euroak/Euros	%
0,00	0,00	18.080	23
18.080	4.158,40	18.080	28
36.160	9.220,80	18.080	35
54.240	15.548,80	23.210	40
77.450	24.832,80	29.810	45
107.260	38.247,30	35.700	46
142.960	54.669,30	65.430	47
208.390	85.421,40	Hortik aurrera/en adelante	49

Hiru. 77. artikulua honela geratzen da idatzita:

«77. artikulua. Kuota gutxitzea.

Zergadunek 1.615 euro gutxitu ahal izango dituzte kuotatik autoliquidazio bakoitzeko, foru arau honen 74. artikuluan ezarritakoaren arabera.»

Lau. 79. artikulua 1. eta 2. zenbakiak honela geratzen dira idatzita:

«1. Zergadunarekin bizi den ondorengo ahaide bakoitzeko, kenkari hau egingo da:

- 682 euro urtean, lehenengoagatik.
- 844 euro urtean, bigarrenagatik.
- 1.421 euro urtean, hirugarrenagatik.
- 1.680 euro urtean, laugarrenagatik.
- 2.195 euro urtean, bosgarren eta hurrengo bakoitzarengatik.

2. Zergadunarekin bizi den sei urtetik beherako ondorengo ahaide bakoitzeko, aurreko apartatuaren arabera dagokion kenkariaren gain, 394 euroko kenkari osagarria egingo da urtean.»

Bost. 81. artikulua 1. zenbakiaren lehen paragrafoa honela geratzen da idatzita:

Tres. El artículo 77 queda redactado en los siguientes términos:

«Artículo 77. Minoración de cuota.

Los contribuyentes aplicarán una minoración de cuota de 1.615 euros por cada autoliquidación, conforme a lo previsto en el artículo 74 de esta Norma Foral.»

Cuatro. Los números 1 y 2 del artículo 79 quedan redactados en los siguientes términos:

«1. Por cada descendiente que conviva con el contribuyente se practicará la siguiente deducción:

- 682 euros anuales por el primero.
- 844 euros anuales por el segundo.
- 1.421 euros anuales por el tercero.
- 1.680 euros anuales por el cuarto.
- 2.195 euros anuales por el quinto y por cada uno de los sucesivos descendientes.

2. Por cada descendiente menor de seis años que conviva con el contribuyente, además de la deducción que corresponda conforme al apartado anterior, se practicará una deducción complementaria de 394 euros anuales.»

Cinco. El primer párrafo del número 1 del artículo 81 queda redactado en los siguientes términos:



«1. Urte natural osoan zergadunarekin modu jarraitu eta iraunkorrean bizi den aurreko ahaide bakoitzeko 328 euroko kenkaria aplikatu ahal izango da.»

Sei. 82. artikulua 1. zenbakia honela geratzen da idatzita:

«1. Desgaitasuna edo mendekotasuna duen zergadun bakoitzeko, hurrengo kenkaria aplikatuko da, erregelamenduz ezarritako eran frogatu behar den desgaitasun edo mendekotasun mailaren arabera:

«1. Por cada ascendiente que conviva de forma continua y permanente durante todo el año natural con el contribuyente se podrá aplicar una deducción de 328 euros.»

Seis. El número 1 del artículo 82 queda redactado en los siguientes términos:

«1. Por cada contribuyente que sea persona con dependencia o discapacidad, se aplicará la deducción que, en función del grado de dependencia o de discapacidad acreditada conforme a lo que reglamentariamente se determine, se señala a continuación:

Desgaitasun edo mendekotasun maila	Grado de dependencia o discapacidad	Kenkaria / Deducción (eurotan/euros)
%33ko desgaitasuna edo handiagoa eta %65etik beherakoa	Igual o superior al 33% e inferior al 65% de discapacidad	906
%65eko desgaitasuna edo handiagoa. Mendekotasun moderatua (I. gradua)	Igual o superior al 65% de discapacidad. Dependencia moderada (Grado I)	1.294
Mendekotasun larria (II. gradua)	Dependencia severa (Grado II)	1.552
Mendekotasun handia (III. gradua)	Gran dependencia (Grado III)	2.040

Aurreko paragrafoan aipatutako desgaitasun eta mendekotasun maila neurtzeko xedapen hauek hartuko dira kontuan: urriaren 18ko 888/2022 Errege Dekretua, desgaitasun maila aitortu, deklaratu eta kalifikatzeko prozedura ezartzen duena, eta otsailaren 11ko 174/2011 Errege Dekretua, zeinaren bidez onesten baita mendekotasun egoera baloratzeko baremoa, autonomia pertsonala sustatzeari eta mendekotasun egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legeak ezarria.

Kenkari bera aplikatuko da ezkontidea edo izatezko bikotekidea desgaitua edo mendekoa izan eta apartatu honetan ezarritako betekizunak betetzen dituenean.»

Zazpi. 83. artikulua honela geratzen da idatzita:

«83. artikulua. Kenkaria adinarengatik.

El grado de discapacidad y de dependencia a que se refiere el párrafo anterior se medirán conforme a lo establecido en el Real Decreto 888/2022, de 18 de octubre, por el que se establece el procedimiento para el reconocimiento, declaración y calificación del grado de discapacidad, y en el Real Decreto 174/2011, de 11 de febrero, por el que se aprueba el baremo de valoración de la situación de dependencia establecido por la Ley 39/2006, de 14 de diciembre, de Promoción de la Autonomía Personal y Atención a las personas en situación de dependencia.

La misma deducción se aplicará por el cónyuge o pareja de hecho que sea persona con discapacidad o dependiente y que cumpla los requisitos establecidos en este apartado.»

Siete. El artículo 83 queda redactado en los siguientes términos:

«Artículo 83. Deducción por edad.



1. Zerga oinarria 20.000 eurokoa edo txikiagoa duen 65 urtetik gorako zergadun bakoitzeko, 393 euroko kenkaria aplikatuko da.

Zergadunak 75 urte baino gehiago baditu, eta haren zerga oinarria 20.000 eurokoa edo txikiagoa bada, aurreko paragrafoan aipatutako kenkaria 714 eurokoa izango da.

2. Zerga oinarria 20.000 eurotik gorakoa eta 30.000 eurotik beherakoa duten 65 urtetik gorako zergadunek 393 euroko kenkaria aplikatuko dute, zerga oinarria 20.000 euro gutxitzetik ateratzen den zenbatekoa bider 0,0393 eginda ateratzen den emaitza kenduta.

3. Zerga oinarria 20.000 eurotik gorakoa eta 30.000 eurotik beherakoa duten 75 urtetik gorako zergadunek 714 euroko kenkaria aplikatuko dute, zerga oinarria 20.000 euro gutxitzetik ateratzen den zenbatekoa bider 0,0714 eginda ateratzen den emaitza kenduta.

4. Artikulu honen ondorioetarako, zerga oinarritzat hartuko da foru arau honen 65. eta 66. artikuluetan aurreikusitako zerga oinarri orokorra eta aurrezpenarena batuta ateratzen den zenbatekoa. Zerga oinarri orokorrak saldo negatiboa ematen badu, zero konputatuko da aipatutako baturaren ondorioetarako.

Dena den, zerga oinarri orokorrean eta, hala badagokio, aurrezpenarenaren zerga oinarrian pensio konpentsagarrien eta urteko mantenurako ordainketen murriztapena aplikatzen bada foru arau honen 69. artikuluan ezarritakoaren arabera, murriztapen horrek aurreko paragrafoan xedatutakoari jarraituz kalkulaturako zerga oinarria gutxituko du.»

Bigarrena. Foru arauaren erregelamenduzko garapena.

Diputatuen Kontseiluari baimena ematen zaio foru arau honetan xedatutakoa garatu eta gauzatzeko beharrezko diren xedapen guztiak eman ditzan, Ogasun eta Finantza Departamentuak proposatuta.

Hirugarrena. Aplikazio eremua.

Foru arau hau indarrean jarri ondorengo egunetik aurrera foru sektore publikoan sor daitezkeen entitateei bertan ezarritakoa aplikatuko zaie.

1. Por cada contribuyente de edad superior a 65 años cuya base imponible sea igual o inferior a 20.000 euros se aplicará una deducción de 393 euros.

En el caso de que el contribuyente tenga una edad superior a 75 años, y siempre que su base imponible sea igual o inferior a 20.000 euros, la deducción a que se refiere el párrafo anterior será de 714 euros.

2. Los contribuyentes mayores de 65 años con una base imponible superior a 20.000 euros e inferior a 30.000 euros aplicarán una deducción de 393 euros menos el resultado de multiplicar por 0,0393 la cuantía resultante de minorar la base imponible en 20.000 euros.

3. Los contribuyentes mayores de 75 años con una base imponible superior a 20.000 euros e inferior a 30.000 euros aplicarán una deducción de 714 euros menos el resultado de multiplicar por 0,0714 la cuantía resultante de minorar la base imponible en 20.000 euros.

4. A los efectos del presente artículo se considerará base imponible el importe resultante de sumar las bases imponibles general y del ahorro previstas en los artículos 65 y 66 de esta Norma Foral. Cuando la base imponible general arroje saldo negativo, se computará cero a efectos del sumatorio citado anteriormente.

No obstante, en el supuesto en que se practique en la base imponible general y, en su caso, en la base imponible del ahorro, la reducción por pensiones compensatorias y anualidades por alimentos a que se refiere el artículo 69 de esta Norma Foral, ésta minorará la base imponible calculada de acuerdo con lo dispuesto en el párrafo anterior.»

Segunda. Desarrollo reglamentario de la norma foral.

Se autoriza al Consejo de Gobierno Foral para que, a propuesta del Departamento de Hacienda y Finanzas, dicte las disposiciones necesarias para el desarrollo y ejecución de cuanto se dispone en esta norma foral.

Tercera. Ambito de aplicación.

La presente norma foral será de aplicación a las entidades integrantes del sector público foral que puedan crearse con posterioridad a la fecha de entrada en vigor de la misma.



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Laugarrena. Indarrean jartzea.

Foru arau hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean jarriko da indarrean, 2026ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

Cuarta. Entrada en vigor.

La presente norma foral entrará en vigor el día de su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, con efectos desde el 1 de enero del 2026.